

Euskal Herriko Ahotsak  
ahotsak.com

*Ramon Labaien Sansinenea*

*Donostia,  
Gipuzkoa  
(1928-2013)*

Aurkibidea



## Biografia



Tolosan jaioa, San Frantzisko kalean. Zortzi urtean bizi izan zen han, gerra etorri zen arte. Laskurain ikastolan ikasi zuen, euskaraz. Aita Tolosako alkatea zen, EAJkoa, eta gerran ihesi joan behar izan zuten; Zarautzera joan ziren, eta handik Oñatira. Gero Iparraldera joatea lortu zuten, eta 9 urte egin zituzten bertan, Donibanen eta Saran. Bertako ikastetxeetan ibili zen, eta bueltan, jesuitekin ikasi zuen batxilergoa, Donostian. Madrilen Kimika ikasi eta Erresuma Batuan ere ibili zen lanean, kontserba fabrika batean. Londres hoteleko zuzendari ere izan zen 15 urtean. 1980tik 1983ra Eusko Jaurlaritzako Kultura kontseilaria izan zen, eta EITB, HABE, Euskadiko Orkestra Sinfonikoa, Antzerti eskola... hainbat ekimen bultzatu zituen. Ondoren Donostiako alkate izan zen, 1987 arte. Aditua zen Euskal Herriko historian, artikuluak idazten zituen hainbat hedabidetan. Berunezko soldadutxoak egiten zituen umea zenetik, baita saldu ere.

## Zintak

### DON-061

- **Proiektua:** Donostiako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2009-11-12
- **Iraupena:** 96 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Idoia
- **Transkribatzailea(k):** Etxeberria, Idoia

## Pasarteak

### 1. Zortzi urte arte Tolosan; aita alkate; batzokia

- **Erref:** DON-061/002

- **Iraupena:** 0:03:58. **Hasi:** 00:00:30. **Bukatu:** 00:04:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

### Laburpena:

<p>Zortzi urte arte bizi izan zen Tolosan, gerra etorri arte. Ikastola. Aitona diruduna zen, eta opariak egiten zizkien. Aita alkatea zen, aurretik aitona bezalaxe; kultur gizona ere bazen, euskaltzalea. <em>Antzerti</em> aldizkaria sortu zuen, antzezlanak idazten zituen. Tolosako batzokia. Orduko idazleak. Pena iruditzen zaio politika eta kultura banatu izana.</p>

### Transkripzioa

-Eta denbora gutxian bizi izan ziñan han. Bueno...

-Bai, bueno, zortzi urte, zortzi urte. Gerra hasi zan arte, bai.

-Eta ze oroitzapen daukazu? Garai... zortzi urte arteko...

-Bueno ba aizu, daukat, e, ikastolaren oroitzapena. Han nitun lagunak, nere gurasoak, aitonak, aiton-amonak oso inportanteak zian gure giro hartan. Aitona zan diruduna, eta harek ematen zitun bizikletak eta holako opariyak. Opari nagusiak aitonak eiten zitun. Eta bueno, lehengusubak eta bakizu, haur baten... eta ni oso harro negon nere aita alkate zelako. E, eta bueno, haurraren... haurra, haurrak izaten (d)ituzten karajadak, e. Bai. Baiña ondo, bestela, aizu. Ta gero ba gerra hasi zan.

-Eta zure aita alkate zan.

-Alkate zan.

-Eta familiyan ez zan... aurretik ere alkate gehiyo izan zan.

-Bai, bai, aitona, bai.

-Aitona.

-Bai, bai, eta usten det nere birraitona, birraitona Berastegiko alkate izan zala /izantzala/. Labaiendarrak Berastegiko kasta gea. Berastegiko baserri batekuak.

-Eta, e, zure aitari buruz... bueno, alkate izan zan, baiña baita kultur eragillea...

-Bai, kulturgizona. Bai, bai. Beira, hor dao, hor daukazu nere aita bere mahai gaiñean zeukan Lizardiren argazkiya. [...] zian benetan lagun miñak Lizardi, Ixaak Lopez, Orixe... Hoi, Juan Antonio Irazusta, Jose Izagirre, hoik denak euskaltzaleak ziren. Politikariak baiño gehiago kulturako gizonak. E, nere aita sartu zuten udaletxean, engaiñatu in zuen. Ez zeukan batere alkate izateko bokaziorik. Baiño zien kultur gizonak, euskaltzaleak. E, nolabait aizu ba oso paper, pixu garrantzitsua izan dutenak ba euskeraren berpiztean.

-Zure aita batez ere antzerki...

-Antzerkigilea, bai. Hori zan bere hobiya hori zan. Antzerkiak ein.

-Antzerti...

-Bai, bai, berak sortu zun, aizu, han rebista txiki bat, Antzerti. Beak ordaintze(n) zun, ama haserretzen zan, bere aita ere haserretzen zan. Gaiñea nere aitona zan... bueno, Argentinan sortua. Bere aita, bere aita Argentina jun zan /juntzan/ lelengo karlistada bukatuta ta, eta bueno, harrek ez zun /etzun/ bate... ez zan /etzan/ batere abertzalea, ez zen /etzen/, ez zun /etzun/, ez zitun batere estimatzen nere aitaren euskaltzaletasunak eta gutxiago oraindik bera alkatea izan Primo de Riverakin, Unión Patrioticakin, eta semea izan PNVren alkatea, herri

berean, ez zizaiyon batere gustatu.

-Eta antzerkia idazten zun.

-Antzerkia, bai. Eta Tolosako Batzokiyan ba ematen zian bere, bere obrak. Garai hartan ez zeon /etzeon/ telebistarik, jende oso gutxik zeukan radiyua, eta batzokiyak izaten zian kultur zentro batzuk. Gaur eun ez dia /eztia/, ez dia /eztia/ kultur zentroak, hori, hori´re, hori´re galdu da. Nolabait aizu, ez dakit puskaketa, fraktura bat bezela gertatu da politika eta kulturaren artean. Garai hartako pixuzko gizonak, Aitzol eta hoiek, zea... Lizardi eta Orixe, hoik denak zer ikusirik zuten alderdiyarekin, PNVrekin. Gaur egun, aizu, PNV alderdi politikoa eta kulturaren mundua dijoa beste, beste bide batzutatik. Hori, hori tristura bat da, zeatikan azkenean ezin dezu politika bat egin ez badaukazu kulturaren oinarria. Herri ez bagera, herri aizu, diferentziatua ez bagea ez dago /eztao/, ez dago /eztao/ politikarako etorkizunik, e. Hori kontu... hori buruan sartu behar zaigu. E, ba politikako... politikan izaten ditugun exituak sor zizaizkiola kulturari. Ta ez badao kulturaik ez daola ezer. Euskera galtzen bada, zer gertatuko da Euskal Herriyakin? Ba desagertu ingo dala. Gaur egun hortan dabilta sozialistak, e. Saiatzen ea lortzen duten euskaldun jendea espaiñol bihurtzea. Kostako zaiek!

## 2. Ikastolan, euskaraz

- **Erref:** DON-061/003
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:04:28. **Bukatu:** 00:06:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

### Laburpena:

<p>Laskorain ikastolan ikasi zuen, euskaraz. Hogeia bat haur ziren. Arantxa Munita andere&ntilde;oa. <em>Lizardi</em> ere irakasle ibili zen, alfabetatzen. Tolosaldeko kultur mugimendua. Bere euskara nahaste-borrastea dela dio. Ikastolako oroitzapenak. Lehen Jaunartzea.</p>

### Transkripzioa

-Lehen aipatu dezu ikastolan zu ibili ziñala euskeraz ikasten...

-Bai, bai. Euskera, ikastolan, bai, bai.

-Nola da ikastolaren izena? Nola zan?

-Laskorain.

-Laskorain?

-Bai, gaur egun´e ikastola hori hor dao. Klaro, gaur egun da haundiya. Guk, gue ikastola hua, egongo giñan, zenbat? Hogeien bat haur? Bai.

-Eta andereño ta nor, nor... zeintzuk zebiltzan?

-Bai, bai. Andereñua ni akordatzan naiz zan, "este"... Arantxa Munita.

Arantxa Munita gero monja sartu zan, eta Txinara bialdu zuten. Bai.

-Eta 'Lizardi' ibili zan erakusten...

-Erakusten ibili zan, bai. Besteak beste nere izeba bat, ta bea ere andereñoa zan beste ikastola batean, Pilartxo Sansinenea. Eta Elizatik lortu zun Tolosaldean [...] lelengo talde hori. Alfabetatu zitun, prestatu zitun; beak maestrak zian, titulu hoi bazeukaten, baiño erderaz egiten zekitena euskeraz egiteko.

-Eta orduan bazeon, gerra aurretik, kultur mugimendu bat, hor

Tolosaldean...

-Bai, bai, bai. Tolosaldean.

-... benetan indarra zeukana...

-Indarra zeukana, aizu. Nik uste (d)et Euskal Herri osoan izugarrizko pixua izan duna, e. Bakizu, tolosarrekin esaten duen bezela: "Zer da ba Gipuzkoa? Tolosa eta bere auzoak".

-Gaiñera, Tolosak badauka euskera...

-Bai, pixu haundiya izan...

-...euskera politan fama, ta...

-Bueno, hori... nik uste (d)et euskera guztiyak diala politak, e. Euskera guztiak. Aizu, nere euskera da nahaste berraste bat... Nik ikasi nun Tolosan euskera, baiño geo Sarakoa. Laburditarra, eta hura... ez da berdiña, e. Fraseak eta ez dia egiten modu berean. Han berboak pasibo asko [...] ditu.

-Eta han, ikastolan, zer ikasten zenuten? Gogoratzen dezun zerbait?

-Ez dakit, ze gogoatzen naiz ibiltze(n) giñala pelota jokatzen. Bazeuden pertxa batzuk, abriguak eta txintxilikuak zeuzkatela, eta guk... raya, gure barra zan pertxa, pertxa haren fila hua, aldetik alde ibiltze(n) giñala pelotan. Oain, zerbait ikasten gendun ba ez dakit, ez naiz oroitzen. Oroitzen naizena da, leengo Jaunartzea, leengo ikastola batekin hor montatzen zuten Jaunartzea izan gendula. Bai, gu, ni han neon, besteak beste, San Franziskoko elizan. Eta juniyuak zitula zortzi, juniyuak zortzian. Gerra zibila hasi baiño lehen, hamar, hamar eun. Ta denak illargiyan, iñork ez zuten /etzun/ deusik ikusi, zetorrenik.

### 3. Gerra etorri zenean, Oñatira

- **Erref:** DON-061/004
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 00:06:50. **Bukatu:** 00:09:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

#### Laburpena:

Gerra hasi zenean, aita Tolosan geratu zen, eta beraiek Zarautzera joan ziren. Aita Mutrikurantz joan zen gero, eta beraiek Oñatira. Eskolan ibili zen, andereño Blancarekin. Pelaioak, instrukzioa egiten. Falangistekin sartu zuen amak, karlistak ez zituelako gustuko. Ziburun eta Saran bizi izan ziren gero.

#### Transkripzioa

-Eta, hasi zanian...

-Guk alde in genun. Aita gelditu zan Tolosan, eta gu jun giñan Zarautzera. Ez dakit ze estrategia, ze iten zuten ne aita; geo Tolosa erori zanian, bera ere azaldu zan Zarautzen. Ta Zarautzea hurbildu zanian militarrek, esate(n) zan bezela garai hartan, aita jun zan /juntzan/ tropekin ba Mutrikurutz. Eta gu bialdu giñun, ez dakit, hori ere estrategia bat, Oñatira. Hola, hola jun giñan Oñatira. Ez dakit norbaitek, norbaiten kotxian sartu, eta bueno, Azkoitiatik eta hantxe jun giñan. Oñatira.

-Eta Oñatin, senide batzun etxera ala...?

-Ez, ba ez. Senideak geneuzkan, baiño alokatu genun bizitza bat, hor esan dizuten bezela, agustinuen plaza hortan. Eta bueno, ni hasi nitzan, bazeon eskola bat han, nola daude... ez dakit gaur egun, jauregi oso etxe ederrak... garaitarrak bizi zian han, eta plaza haundi bat etxe txuri luze batzuekin, eta han zan zeon eskola, Oñatiko eskola garai hartan. Ta bueno,

han eon nitzan baiño segitun... ez dakit, izan nun andereño bat klasea ematen ziana, Blanca izena zun, hoi oroitzen naiz, bere baratzean eoten giñan. Eta bueno, nola denak noski karlistak eta dena militarizatu zuten. Mutil txiki guztiyak izaten zian “pelayos”, txapel gorriyak instrukzioa egiten. Ta nere amak, jo, izugarritzko nazka zien karlistei, eta ni izan... ni sartu nindun falanjistekin. Eta eiten genun Oñatin han instrukziyua estaziyan. Leno bazeon tren, trenbidea.

-Bai.

-Estazio koskor bat, unibersidadea pasa eta aurea. Ta han egite(n) genun. Eta akordatzen naiz, gero ya aitonak lortu zuenean ba pasaporte bat, pase bat beste aldera juteko, nere aita han zegon ya... ba nik nahi nun eraman ba beste aldera nere falanjista kapel hua. Amak kendu zian: “Aitak horrekin ikusten bahau, garbituko hau!”.

-Eta zenbat denbora in zenuten Oñatin?

-Oñatin nik uste (d)et eongo giñala lau hillabete o hola? Lau hillabete. Ni... agostuan geundez Zarautzen; “o sea que” iraillen hasieran pasako giñan Oñatira, eta ya eguberritarako Donibane... Ziburun egon giñan garai hartan. Ziburun, ta ya hurrengo apirillean ikusten zan gerra luzeako zijoala, eta osaba batek alokatu zun etxe bat, Prefetenea, Saran, eta hara, hara jun giñan guztiyak. Denak.

#### 4. Oñatitik Iparraldera, Ziburura

- **Erref:** DON-061/005
- **Iraupena:** 0:03:58. **Hasi:** 00:09:16. **Bukatu:** 00:13:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

##### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

##### Laburpena:

<p>Gogoratzen du txapelgorriak nola sartu ziren Oñatira, 1936ko udazkenean. Falangistak. Iparraldean 1945era arte egon ziren. Ziburun batu zen familia: osabarekin kaira joaten zen egunero, Bilbotik zetorren jendea ikustera. Santa Maria eskolan ibili zen. Bi bandotakoak zeuden han. Saran, Elbira Zipitria andereñoarekin bizi ziren. Nolakoa zen.</p>

##### Transkripzioa

-Eta Oñatin gerra ez zenuten ikusi, ez? Ya... ez zan egon resistentziarik, Oñatin.

-Ez, ez zan eon, ez.

-Baiña...

-Nik hori holaxe, nola jetsi zian karlistak. Ez dakit, aizu, etxe hartatik ikusten (d)an bistakin, ez zan asko aldatuko gaur egun ere. Eta bueno, bai, txapel gorrik zian. Tiro batzuk bota zituzten. Izan zian, tiro batzuk entzun zian, ta han bazeon hoitako ze... transformadore elektriko bat, poste baten gainean, dana txoriz bete zan hua. Horik, horik ikusten ditut oaindikan. Eta pentsa, ai naiz, ai gea mintzatzen ba 36ko udazkenez. E, jo, oain dela ba zenbat... bua, ba hirurogeita, hirurogeita hamasei urte, holako zerbait.

-Eta kotxe txiki baten...

-Bi falanjista.

-Bi falanjista?

-Gaiztuak. Hoik, hoik in zuten, iten zituzten errepresiyuak. Jendea espetxeratu, denunzi, denunziyak jaso... tipo, tipo gaiztuak zian.

“Verdugos”.

-Eta kanpotarrak ziran?

-Bai, bai, bai. Karlistak ez dakit ze tertziokuak... gehiyenak naparrak izate(n) zian, naparrak karlistak. Astokilluak, jeneralian.

-Eta gero, e Iparraldian zenbat denbora in zenuten?

-Ba Iparraldian jun giñan esan bezela hogeita hamaseiyan, eta bihurtu giñan berrogeita bostian. Beatzi urte.

-Beatzi urte.

-Bai, jun giñan... nere aitag eman zun dirua hamabost eguneako. Eta egon giñan beatzi urte. Baiño ondo.

-Eta hango bizimodua nolakua izan zan?

-Bueno, mota askotakua. Nik, bueno... Ziburuan ni akordatzan naiz joaten giñan... bizi giñan aizu, familiya in zana /intzana/ zan batu. Osabak, denak bizi giñan etxe berian. Zigarrola izena zun etxe berian, Ziburun. Ta goizero gu juten giñan, nere osaba bat, Jexux, eta neroni, juten nitzan berarekin kaiyera ikustera aber ze jende zetorren Bilbotik. Zeatik jendea ai zan ebakuatzen Bilbotik. Etortzen zian merkantetan, ontzi merkantetan, baiño armada inglesak eskoltatuak. Batzuek zea, destruktore batzuk eta abar. Eta orduan harea juten giñan, eta bueno, ni hasi nitzan han Santa Mari eskolan, kolejiyuan. Han geuden haur emigratu guztiak, zortzi urtekuak eta hamabost urtekuak, danak klase berian, eta liburu bat eman ziguten, dikzionariyua. Nik ez dakit, dikzionariyua irakurtzen eo ulertzen... ez genun golpeik ematen, beti politikaz mintzatzen... [...] blablabla gue artean. Zeatik zeudezen bi bandokuak: katalanak, republikanuen beldurran harea, han kokatu ziranak eta abertzaleak, hemen [...] zan izugarrizko nahaste-borrastea. Baiño bueno, ondo bizi giñan Donibanen, eta esan bezela, gero ba ya Santa Maria utzi eta jun giñan Sarara. Eta gue etxean bizi zan, Saran bizi zan Elbira Zipitria. Andereño bat, oso famatua bere garaiyan. Ta baiño, zan, aizu, izugarrizko... Nemesio Etxanizek esan zun /esantzun/ bezela, aizu, jo... “aboa hortzez betea daukan neskazahar ozpindua”, esan zun /esantzun/ apaizak. Kriston kunplidua in zion, baiño ni izan nitzan Saran bere ikasle bakarra. Horrek badu meritua, e!

-Eta zu bere ikasle ziñan orduan...

-Haren ikasle bakarra, horrek meritua dauka.

-Eta berak, e, gerra aurretik ere ikastola...

-Bai, bai, hemen, Donostiyan. Bai, Orixe ikastolan, bai.

-Bera ibili zan ikastolan...

-Bai, bai, gaiñea andereño oso ona zan. Oso persona... metolodologia ona zeukan, eta beti saiatzen ai zan metolodologia berriyak lortzen, eta bai, bai. Andereño bezela oso ona zan. Baiño...

-Zorrotza.

-Bai, persona zaila zan, eta bueno, ni akordatzan naiz Prefetenean gauero entzuten zun radio espaiñola. Eta entzuten zun Queipo Llanok botatzen zitun astakerik. “Los sacerdotes vascos no son sacerdotes, son socerdotes”, holakuak, baiño, baiño... ta bea negarrez gauero, nik ikusten det oaindikan Elbira nearrez, Queipo Llano entzuten. Baiño hori pixkat masokista zan.

## 5. Sarako etxean, bisitari ugari

- **Erref:** DON-061/006
- **Iraupena:** 0:03:26. **Hasi:** 00:13:14. **Bukatu:** 00:16:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak

**Laburpena:**

Azkoitiko gudari bat izan zuten etxean, Saran, Prefet-enean. Errefuxiatuak Landetara joaten ziren, arbolak moztera. *Orixe* eta Elbira Zipitria, beti eztabaidan. Madrilgo familia bat ondoko etxean. Sarako eskolara joan zen, eta beti "punituak" egoten ziren euskaraz egiteagatik. Donibanen ikasi zuen frantsesa gero.

**6. Eresoinka eta Leaburuko parrokoa**

- **Erref:** DON-061/008
- **Iraupena:** 0:03:14. **Hasi:** 00:16:46. **Bukatu:** 00:20:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

**Laburpena:**

Eresoinka elkarteak sortu zen Saran; gero Parisen ibili zen. Leaburuko parrokoaren kontuak, Donibane Lohizuneraino nola joan zen. Joxe Migel Barandiaranek latinezko eskolak eman zizkion; oso zorrotza zen. Zigor fisikoak normalak ziren garai hartan.

**7. Alemaniarrekin ondo konpondu ziren bai euskaldunak eta bai bretoiak**

- **Erref:** DON-061/009
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:20:00. **Bukatu:** 00:21:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » II. Mundu Gerra (1939-1945)
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

**Laburpena:**

Kimika ikasi zuen. Alemaniarrek Donibanen sartu zirenekoa. "Arraza garbia" zen euskaldunena haientzat, eta ez zuten arazorik izan. Barandiaranen indusketa batzuk ere finantzatu zituzten; Municheko unibertsitateak euskarazko katedra zeukan. Alemaniarrek Bretoiak askatu zituztenekoa.

**8. Bueltan, isilpeko biltzarrak Madrilén eta Donostian**

- **Erref:** DON-061/010
- **Iraupena:** 0:03:49. **Hasi:** 00:21:35. **Bukatu:** 00:25:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Politika » Politika eta Franco
- Politika » Euskara eta politika

**Laburpena:**

Bueltan, Kimika ikasi zuen Madrilén; jesuiten ikastetxean egin zuen batxilerra, aurretik. Frantzian hezkuntza hobeto zegoen. Madrilén euskaldunek biltzar abertzaleak izaten zituzten; Donostian ere bai, <em>Txillardegi</em> rekin-eta. <em>Orixe</em> ren 'Euskaldunak' argitaratu zuen aitak, eta irakurri egiten zuten. Aktibismoa: ikurrina jartzea, propaganda. Euskara debekatua.</p></div>
<div data-bbox="290 302 839 318" data-label="Section-Header>
<b>9. Donostian giro berezia, gerra aurretik zein ondoren</b>
</div>
<div data-bbox="329 331 764 378" data-label="List-Group>
<ul>
<li>• <b>Erref:</b> DON-061/011</li>
<li>• <b>Iraupena:</b> 0:02:36. <b>Hasi:</b> 00:25:24. <b>Bukatu:</b> 00:28:00</li>
<li>• <b>Multimedia:</b> bideoa online ikusgai</li>
</ul>
</div>
<div data-bbox="290 391 364 405" data-label="Section-Header>
<b>Gaia(k):</b>
</div>
<div data-bbox="329 418 813 448" data-label="List-Group>
<ul>
<li>• Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna</li>
<li>• Politika » Euskara eta politika</li>
</ul>
</div>
<div data-bbox="290 461 393 475" data-label="Section-Header>
<b>Laburpena:</b>
</div>
<div data-bbox="290 477 881 523" data-label="Text>
<p>Beldurra, euskara debekatua. Kaleko giroa tristea, faltsua. Frankista asko zegoen Donostian. Probintziako jendeak abertzaletu du hiria. Donostiako giro berezia, probintziako herrietan ez bezalakoa. Burgesia.</p>
</div>
<div data-bbox="290 547 797 577" data-label="Section-Header>
<b>10. Erresuma Batuan lanean eta Londres hoteleko zuzendari</b>
</div>
<div data-bbox="329 592 764 639" data-label="List-Group>
<ul>
<li>• <b>Erref:</b> DON-061/012</li>
<li>• <b>Iraupena:</b> 0:02:51. <b>Hasi:</b> 00:28:00. <b>Bukatu:</b> 00:30:51</li>
<li>• <b>Multimedia:</b> bideoa online ikusgai</li>
</ul>
</div>
<div data-bbox="290 651 364 665" data-label="Section-Header>
<b>Gaia(k):</b>
</div>
<div data-bbox="329 678 830 692" data-label="List-Group>
<ul>
<li>• Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa</li>
</ul>
</div>
<div data-bbox="290 705 393 719" data-label="Section-Header>
<b>Laburpena:</b>
</div>
<div data-bbox="290 721 896 798" data-label="Text>
<p>Kimika ikasten bost urte egin zituen Madrilén, eta Erresuma Batura joan zen lanera. Izoztuen kontserba lantegi batean ibili zen. Londresen gustura zegoen, baina lanetik Espainiara bidali zuten, San Adrianera. Londres hoteleko zuzendaria izan zen. Turistak freskura bila zetozen, aire giroturik ez baitzegoen artean.</p>
</div>
<div data-bbox="290 823 884 840" data-label="Section-Header>
<b>11. Cristina erregina, Alcala Zamora eta Franco, Donostian</b>
</div>
<div data-bbox="329 853 764 899" data-label="List-Group>
<ul>
<li>• <b>Erref:</b> DON-061/013</li>
<li>• <b>Iraupena:</b> 0:02:58. <b>Hasi:</b> 00:30:51. <b>Bukatu:</b> 00:33:49</li>
<li>• <b>Multimedia:</b> bideoa online ikusgai</li>
</ul>
</div>
<div data-bbox="290 911 364 926" data-label="Section-Header>
<b>Gaia(k):</b>
</div>
<div data-bbox="329 938 697 952" data-label="List-Group>
<ul>
<li>• Politika » Gerra aurea » 1914-1923: Monarkia</li>
</ul>
</div>

- Politika » Gerra aurea » 1931-1936: II. Errepublikak
- Politika » Politika eta Franco

#### **Laburpena:**

<p>Donostia modan Espainiako Cristina erreginak jarri zuen; Aieteko jauregian egon zen lehenengo eta gero Miramar jauregian (ikus mapan). Europako aristokrazia ekarri zuen. Casinoa. 1914ko gerran paradisua zen. Baina gero 1931n errepublikaren alde agertu ziren donostiarrak. Alcala Zamora. Francok militarrek ekarri zituen. Batzuk kartzelara sartzen zituzten beti.</p>

### **12. Bueltan, Tolosako etxean falanjistak; amaren familia**

- **Erref:** DON-061/014
- **Iraupena:** 0:02:56. **Hasi:** 00:33:49. **Bukatu:** 00:36:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### **Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

#### **Laburpena:**

Aita 1945ean bueltatu zen bestaldetik. Falangea zegoen Tolosako etxean. Donostiara. Ama abenidan jaioa zen. Birraitonak sagardotegia zeukan Portu kalean, eta Aiako baserritar batekin ezkondu zen. Ostatu jarri zuten. Burgesia nola sortu zen, Ensanchearen kontura. Sansineneatarren sagardotegia.

### **13. Gure herriko historia interesatu zaio beti**

- **Erref:** DON-061/015
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 00:36:45. **Bukatu:** 00:38:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### **Gaia(k):**

- Bestelako kontuak » Historia orokorra

#### **Laburpena:**

Historia beti interesatu izan zaio. Historiaren interpretazioak. Ibai batekin konparatzen du historia. Herri bakoitzak bere historia izan behar du.

### **14. Euskalduntasun sentimendua, XVII. mendean ere bai**

- **Erref:** DON-061/017
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:38:28. **Bukatu:** 00:40:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### **Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Bestelako kontuak » Historia orokorra

#### **Laburpena:**

<p>Frantziako Iraultzaren garaiko mugimendua aipatzen du, Gobernu frantsesa konturatu zela euskaldunek herri bat osatzen zutela. Azkoitiko jauntxoak. Larramendiren idatziak. Gaur egungo hezkuntzaren mugak, teknikoegia dela. <em>Lizardi</em>, Lopez Mendizabal.</p>

## 15. Lehen nazioan sinesten zuten, ez alderdietan

- **Erref:** DON-061/019
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:40:34. **Bukatu:** 00:42:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak

### Laburpena:

Politikan nola hasi zen. Beste aldean zeudenentzat, Eusko Jaurilaritza zen ikurra, Jose Antonio Agirre lehendakaria. Armada, itsasontziak, gudariak... Nazioan sinesten zuten, ez alderdi batean. Hori aldatu egin dela dio. Indar galera aipatzen du.

## 16. Itsas armadako itsasontziak eta Galernaren traizioa; 'Aitzol'en heriotza

- **Erref:** DON-061/020
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:42:28. **Bukatu:** 00:44:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

### Laburpena:

<p>Nabarra boua Baionako portuan ikusi zuen. Galerna bouak traizioa egin zuen, eta Pasaian porturatu zen; <em>Aitzol</em> zihoan bertan, eta hurrengo egunean fusilatu zuten.</p>

## 17. Politikagintzan emandako urratsak: Kultura sailburu

- **Erref:** DON-061/021
- **Iraupena:** 0:04:32. **Hasi:** 00:44:08. **Bukatu:** 00:48:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)
- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Politika » Euskara eta politika

### Laburpena:

Hamabost urtean izan zen Londres hoteleko zuzendari. Udal frankista kentzeko gestoran egon zen. Donostiako alkateorde izan zen hasieran eta gero Kultura sailburua, Jaurilaritza. Eitb sortu zuten, itzulpena indartu, bikoizketa eskola... Alfabetatzea, HABE. Antzerti eskola. Orduko ilusioa. Garaikoetxea.

## 18. 'Euskal Telebista'ko lehen emisioa

- **Erref:** DON-061/022
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 00:48:40. **Bukatu:** 00:50:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Kultura » Aisia » Hedabideak » Telebista
- Politika » Euskara eta politika
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

**Laburpena:**

Oztopo asko izan zituzten euskarazko irrati-telebista sortzeko, Madrilen ez zutelako nahi. Materiala ekarri zuten AEBetatik, isilpean. Kamioi batetik egin zuten lehen emisioa.

**19. HABE eta AEK**

- **Erref:** DON-061/024
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:51:12. **Bukatu:** 00:53:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

**Laburpena:**

Helduen alfabetatzea, 50 urtetik beherakoentzat. HABEk metodologiak aztertu ditu. AEKren balioa azpimarratzen du.

### Transkripzioa

-Ta, helduen alfabetatzea eta, hori ere beste?

-Bai, hori ere kulturaren sortu gendun, bai.

-Inportantia da hori, ez?

-Bai. Bueno noski zeukala bere inportantzia baiño, nik jarri nun [...] baiño berrogeita hamar urte arte eh, guk pentsatzen gendun berrogeita hamar, berrogeita hamar urtetik gora euskal, euskeraz ez dakinak ez du behin ere ikasiko! Ez du behin ere erabiliko! Ez du [...] horrekin, diruba gastatzea. Hartu ditzagun hogeita hamar urtekuak, ez dakitenak euskaraz, hoik ikasiko dute baiño, berrogeita hamar urtetik gora, ez du [...] diruba gastatzea. Total, jubilatuko da hemendikan hamar-hamabost urtea, ez due ikasiko.

-Egongo da norbait, ez? Ikasten duna.

-Baiño, minoria bat, minoria bat, minoria bat. Eta bueno gaiña, HABEk egin duna, izan dia lortu, aztertu, metodologiak, euskeraz ikasteko metodologiak. Baiño benetan hor, merito haundiya, gehiyena izan dutenak izan dia AEKkuak eh, AEKkoak horko irakasleak, diru gutxikin'e konformatuak, entusiasmo haundi batekin... Eta nik beti lagundu egin ditut AEKkuak.

-HABE sortu zanerako AEK martxan zegon?

-Martxan zegon, bai, martxan zegon. Eta ordun bueno, azkenean egin gendun bueno ba, AEK finantzatu. Heak'e beren tranpak egiten zituzten, [...] apaiza zan hoietako AEKko buruzagi bat eta, harrek esaten zun: "guk dauzkagu berrogeita hamar milla ikasle", bai baiño aber, pagatu al dute matrikula? Ta "gu gea, erakunde publiko bat", ez, "zuek ez zeate erakunde publiko bat, zeate interes publikoa daukan erakunde pribatu bat", hori beste kontu bat da. Interes publikoa dezula, dudarik ez, erakunde pribatua zerala ere, dudarik ez. Baiño garai hartan, gauza hoiek gaur egun bueno onartzen dia ta argi baiño garai hartan, eztabaida bat izaten zan beti. "Gu gea publikoak herriyak aukeratu gaitulako", baiño ze herriyak? Hor zeon pixkat mistifikaziyo bat.

## 20. 'Eitb'-ren sorrerako zailtasunak

- **Erref:** DON-061/026
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:54:12. **Bukatu:** 00:56:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)
- Kultura » Aisia » Hedabideak » Irratia
- Kultura » Aisia » Hedabideak » Telebista

### Laburpena:

<p>Hasieran zailtasun handiak izan zituzten, profesionalak falta ziren. <em>Euskadi Irratia</em>n pertsona bakarra zegoen futbol partidak emateko gai zena. Telebista eta irratia euskara salbatzeko egin zituzten. Hezkuntzaren eta komunikabideen garrantzia.</p>

## 21. 80ko hamarkadako giro nahasia

- **Erref:** DON-061/028
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:57:29. **Bukatu:** 00:59:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)
- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak

**Laburpena:**

1980-83 urteetan, Kultura kontseilari eta ondoren Donostiako alkate izan zen. Orduko giroa. ETaren eta Guardia Zibilaren atentatuak. Gehiengoa zuen EAJk Donostian.

**Transkripzioa**

-Bueno zu izan zifan, 80tik 83ra, ez?  
-83ra bai, bai, bai.  
-Eusko Jaurilaritzako kultura kontseillaria?  
-Bai, bai.  
-Eta, ondoren, Donostiako alkate?  
-Donostiako alkatea, bai.  
-Eta Donostian, zeintzuk ziran erronkak garai hartan? 83an?  
-Bueno, izate(n) zian problemak kalia, aizu pixkat iraultza giroa zeon, eta bueno ETaren atentatuak problema bat zian baiño baita ere Guardia Zibillaren atentatuak. Nik ez dakit hemen zenbat, zenbat erail zan, o erailketa izan genituen garai hartan, lau urte haietan baiño izango zian hoge baiño gehiyago, hoge-hogeita bost erailketa, ta joe alkatearentzat aizu ba, hillea guztitara jutea ez zan broma eh, bazirudien kulpa alkatearena zela, juten baziñen Guardia Zibil baten funeraletara, jo! Goardia Zibillak baldin bazian montatzen zizkieten kristonak. Juten baziñaren bueno ezker abertzaleko kide baten funeraletara besteak montatzen ziaten beste kristo bat, oseake bueno! Nik ez nitun problema haundiyak izan zeatikan lortu nun gehiengoa. Oseake PNVk atera zitun hauteskunde haietan hemen Donostian, dia 21, 21, 27 zinegotzi. Hoitatik bat alkatea, ta beste hogeita sei. Gu gifan, PNVkoak gifan hamar, ta nik egin nun pastela, Euskadiko Ezkerrakoa, biyakin bi zian, eta PPko beste biyakin. Eta hamar gehi lau, hamalau, mayoría absoluta. Hartze(n) genitun gure erabakiyak eta ez zeon problemarik. Hoiek izan zian kalekoak eta abar eta bueno, festibalekoak eta, aizu dena gelditu zan oso hankaz gora, festibalak bere kategoriya galduta zeukan, ta hamabostak... ya kategoriya galduta zeukan, Donostiak oso fama txarra zeukan. Aizu, abenidan sartze(n) zian etxebizitzak, aizu berrehun metroko etxebizitzak hiru milloi, hiru milloi terdi, erregalatu, jendeak alde ite(n) zun, beldurra zeukalako.

**22. Alkate zegoela, turismoa bultzatzeko ekimenak**

- **Erref:** DON-061/030
- **Iraupena:** 0:02:37. **Hasi:** 00:59:38. **Bukatu:** 01:02:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Kultura
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak

**Laburpena:**

Alkate zegoela, hainbat ekimen egin zituzten, turismoa bultzatzeko. Maria Kristina hotela berri zuten, Kursala, lau kultur etxe egin zituzten... Zinemaldiak prestigioa galduta zeukala dio, eta zein arazo zeuden.

## 23. Lehenengo kultur etxea

- **Erref:** DON-061/032
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 01:02:23. **Bukatu:** 01:04:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Politika » Euskara eta politika

### Laburpena:

Lehenengo kultur etxea nola egin zuten azaltzen du, Basaurin. Orduko entusiasmoa. Eskultura eskola zegoen Aian. Lehenengo ikurrinak.

## 24. Francoren garaiko gorabeherak

- **Erref:** DON-061/034
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 01:04:23. **Bukatu:** 01:06:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco
- Politika » Euskara eta politika

### Laburpena:

<p>Joseba Elosegik Artzain Onaren gainean ikurrina jarri zuen. Garai bateko manifestazioak; grisak. Gaur egungo egoerari buruzko iritzia.</p>

## 25. Intelektuala eta artisaua

- **Erref:** DON-061/038
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 01:07:04. **Bukatu:** 01:08:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan

### Laburpena:

<p>Berunezko soldadutxoak. Donibane Lohizunen hasi zen kartoizko soldaduak egiten. Historia militarra asko gustatu izan zaio. Baratzea. Beste afizio batzuk: urpeko arrantza, bela, irakurtzea...</p>

## 26. Urpeko arrantza

- **Erref:** DON-061/040
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 01:09:02. **Bukatu:** 01:10:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Beste batzuk

**Laburpena:**

Urpeko arrantza; lehenengo fusilak, Frantzian. Donibanen ibiltzen ziren, eskolakoak. Lubina, dorada...

**27. Goserik ez, gerraostean**

- **Erref:** DON-061/041
- **Iraupena:** 0:02:09. **Hasi:** 01:10:17. **Bukatu:** 01:12:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

**Laburpena:**

Goserik ez zuten pasatu Saran eta Donibanen; bueltan ere ez, izeba-osaben etxean. Estraperloa. Patata landatzen zuten Saran. Txerria ezin hazi. Zugarramurdiko eta Sarako bentak. Ardoa, olio.

**28. H-aren kontura, istiluak**

- **Erref:** DON-061/043
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 01:12:33. **Bukatu:** 01:14:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Kultura » Aisia » Hedabideak » Telebista
- Euskara » Euskararen egoera
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

**Laburpena:**

<p>Aita euskaltzain osoa izan zen. Orduko istiluak h-aren kontura. Bi belaunaldiren arteko talka. Telebistan erabiltzen den euskara gipuzkera osatua dela dio. Anekdotak.</p>

**Transkripzioa**

-Eta Euskaltzain osua?

-Bai, bueno han izan zitun bere istilluk-eta, H-kin eta Euskara batuarekin eta, ez batuarekin eta, noski... Bakizu, hor gertatu zan bueno, gertatzen dana, gerra baten ondoriyo izan zan, bi belaunaldian arteko fraktura bat. Gerra aurreko belaunaldia hoik, eta gerra ondoreko, frankismoaren garaiko belaunaldiya. Belaunaldi zaharrokuak hartu zituzten belaunaldi berriyaren inizatibak agresiyo politiko bat bezela. Pixkat izan zan hortik ere eh, baiño aizu hoik hasi zian esaten Lizardi zala majadero bat, Orixek ez zuela ezer baliyo, bueno gero ekilibriyo bat lortu da, eta bueno aitortu dia baliyo dutenak. Asko edo gutxi, beste kontu bat izango da. Baiño, bai, H-rekin-eta nere aita bota zitun izugarrik.

-Zure aita zeon... H-ren aurka, ez? Gipuzkeraz idaztitan alde, eta?

-H-ren aurka. Bai, bai, bai, bai. Dudarik gabe. Bai. Ta azkenian aizu telebistan, ez da euskera batua erabiltzen dana, nik uste det dala Azkuek rekomendatzen zuen gipuzkera osatua. Akordatzen naiz gu hasi giñan nolabaiteko ez zan batua, ez zan Tolosako euskera, gipuzkera osatu bat, eta lehenengo doblaia egin gendunean zea, "Oporrak itxasoan" bazeon serial bat telebistan garai hartan, "Vacaciones en el mar". Eta ez dakit zeñei okurritu zitzaion serial hortan ontzi bat, hoitako kruzeroak egiteko

ontziya, eta 'barmana' zan beltza, eta denak iten zuten bueno ba euskera batuan edo, gipuzkera osatuan baiño, 'barmanak' egiten zun bizkaieraz: [...], eta orduan Joxe Mari [...] diputaduak, gipuzkera, Bizkaiko ahaldun nagusiak diputatu jeneralari jo, eskribitu zion karta bat lehendakariyari esaten aber erua, erotu nintzan ta, ni ez nintzan izan interesatua, uste det Beobideren 'karajada' bat izan zala. Baiño haserretu in zian bizkaitarrak: “zer da hau?!”. Beltza bizkaieraz, ta beste guztiak gipuzkeraz, elegantiak gipuzkeraz, ta 'barmana', bai... Holako gauzak askotan gertatu zian.

## 29. Arma lantegia eta Ertzaintzaren uniformeak

- **Erref:** DON-061/048
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 01:17:20. **Bukatu:** 01:19:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)
- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Armagintza

### Laburpena:

Alkatetza utzi zuenean, arma lantegi batean egon zen lanean Andoainen. Beruneko soldadutxoak egiten ditu. Ertzaintzaren uniformeak ere berak diseinatu zuen.

## 30. Haurtzaroko oroitzapenak; juduen deportazioa

- **Erref:** DON-061/050
- **Iraupena:** 0:04:05. **Hasi:** 01:19:16. **Bukatu:** 01:23:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Politika » II. Mundu Gerra (1939-1945)
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

### Laburpena:

Bere belaunaldiak zortea izan zuela dio, dena egiteko zegoela. Haurtzaro ona izan zuen, errefuxiatu zela. Orduko jolasak: uztia, ardo botila lapurtu eta saldu... Juduak, izar horiarekin, eta deportazioa.

## 31. Mugalariak eta kontrabandistak

- **Erref:** DON-061/052
- **Iraupena:** 0:02:19. **Hasi:** 01:23:28. **Bukatu:** 01:25:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Politika » II. Mundu Gerra (1939-1945)
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

**Laburpena:**

<p>Pilotu aliatuak bestaldera pasatzeko sarea. Gestapokoek nola garbitu zituzten andre-gizon batzuek, desertore almeniarrek gordetzeagatik. Aduanero austriarrak. Berara dantzara. Kontrabandisten meza, 04:00etan.</p>

**32. Kontrabandoa I. Mundu Gerran eta ondoren**

- **Erref:** DON-061/053
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 01:25:47. **Bukatu:** 01:27:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

**Laburpena:**

Kontrabandistak, hegoalde zein iparraldekoak. I. Mundu Gerran mandoak pasatu zituzten armadarentzat. Gero, pieza mekanikoak, enkajeak... pisu gutxiko eta balio handiko gauzak.

**33. Gerra garaiko lapurretak etxeetan**

- **Erref:** DON-061/056
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 01:28:03. **Bukatu:** 01:30:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera

**Laburpena:**

Aieteko jauregia Udalarena da. Lapurtutako gauza mordoa zegoen han. Telesforo Monzonenak, besteak beste. Etxean ere dena lapurtu zieten. Marokoko soldaduek josteko makinak osten zituzten.

**34. Oñatiko oroitzapenak, gerra hasieran**

- **Erref:** DON-061/059
- **Iraupena:** 0:02:46. **Hasi:** 01:31:16. **Bukatu:** 01:34:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuek eta sasimedikuek

**Laburpena:**

<p>Mutikotan, Oñatiko zegoela, erreketee balak ematen zizkieten. Osaba medikua agertu zen. Etxaluzeko medikuaren kontuak; lehenengo zesarea. Familiak zatitu egin ziren.</p>

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

*2025-06-12*

**CC-by-sa | Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com